



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

ITZIAR CASTRO ANTZEZLEA DA FRANKENSTEINEN NESKA-LAGUNA 2018 BELDURREZKO ASTEAREN KARTELEAN

*Mary Shelleyk sortutako pertsonaiari
eskainitako ziklo bat eta David Ajaren eta
Sandra Arteagaren erakusketak aurtengo programazioan*

Itziar Castro da **urriaren 27tik azaroaren 2ra arte** izango den **Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko 29. Zinemaren Astearen** kartelaren protagonistea.

Hala, Frankenstein munstroaren neska-lagun bihurtu da, 1935ean Universal ekoiztetxeak sortutako pertsonaia jatorrizko filmaren jarraipenean: **Bride of Frankenstein** (1935), aurrenekoa bezala James Whalek zuzendua.

2018an betetzen dira 200 urte Mary Wollstonecraft Shelleyren *Frankenstein edo Prometeo modernoa* nobela argitaratu zenetik, bi urte lehenago behin baino gehiagotan zinean eta literaturan birsortu izandako Villa Diodati etxeko gaueko elkarraldi famatuan zirriborratua. Hala, kartelarekin eta atzera begirako ziklo batekin egin nahi izan dio omenaldi Asteak beldurraren mito horri.

Pelikulan Elsa Lanchesterrek antzeztutako pertsonaia da kartelean Itziar Castro; Frankenstein doktoreak sortutako laguna, Boris Karloffek hezurmamitutako izakiarentzat.

Pedro Usabiaga argazkilariak egin du argazkia **Añarbeko Uren Hondakin Uren Ponpaketa Estazioan, Saguesen**.

1977an Bartzelonan jaioa, Itziar Castro aurkezle, antzezle eta abeslariak zenbait antzerki ikuskizunetan parte hartu izan du *–Ball de titelles, Taboo* edo *Pals*, besteak beste– baita telesailetan ere *–Vis a vis* (2018)–.

Joan den urtean protagonista izan zen Astearen proiektatutako Pintó & Caye-ren **Matar a Dios** (2017) filmean, eta azken urte hauetan beste hauetan lan egin izan du: **El gran Vázquez** (2010), **Blancanieves** (Pablo Berger, 2012), **[REC]³ – Génesis** (Paco Plaza, 2012), **Las brujas de Zugarramurdi** (Álex de la Iglesia, 2013), **Pieles** (Eduardo Casanova, 2017) edo **Campeones** (Javier Fesser, 2018). Pintó & Cayek ere zuzendutako **RIP** (2017) film laburrean duen paperak lotu du komedia beltzaren eta fantasiakoaren generora.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

zikloa **MARY SHELLEYREN ONDAREA**

Historian zehar, ehun pelikulatan baino gehiagotan izan dira protagonista Frankenstein doktoareak sortutako munstroa, haren neska-laguna, egilea bera, zientzialariaren hainbat ondorengo eta jarraitzaile. J. Searle Dawleyren (**Frankenstein**, 1910) eta Eugenio Testaren (**Il mostro di Frankenstein**, 1921) hasierako bertsioetatik duela gutxiko **Mary Shelley** (Haifaa Al-Mansour, 2017) filmera arte, idazle britainiarraren nobelak liluratuta utzi izan ditu garai guztietako zinegileak.

Universal-en pelikulak –**Frankenstein** (1931)– zinearen ikono bihurtu zuen munstroaren pertsonaia (ez bakarrik beldurrezko generoan). Mitoak garai guztietako zinegileak inspiratu izan ditu, eta hala hurbildu dira haren unibertsoa eta pertsonaia era askotan: Terence Fisher –**The Curse of Frankenstein** (1957)–, Brian Yuzna –**Bride of Re-Animator** (1989)–, Ken Russell –**Gothic** (1986)–, Roger Corman –**Frankenstein Unbound** (1990)–, Kenneth Branagh –**Mary Shelley's Frankenstein** (1994)–, Víctor Erice –**El espíritu de la colmena** (1973)–, Mel Brooks –**Young Frankenstein** (1974)–, Frank Henenlotter –**Frankenhooker** (1990)–, Gonzalo Suárez –**Remando al viento** (1988)–, Paul Morrissey & Antonio Margheriti –**Flesh for Frankenstein** (1973)–, Kornél Mundruczó –**Tender Son: The Frankenstein Project** (2010)–...

Anitzak eta askotarikoak dira bertsioak. Asteak hamar pelikula proiektatuko ditu pertsonaiara hurbiltzeko, sortu zenetik 200 urte bete direnean, eta ikuspegi aniztasun hori bildu du gainera. Jakina, bertan izango dugu **Bride of Frankenstein** bera.

Zikloa **Sitges Film Festival – Festival Internacional de Cinema de Catalunya**arekin lankidetzan egin da.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

ERAKUSKETAK

SUPERHEROIAK

David Aja

Okendo K. E. / urriak 27 – abenduak 8

Superheroiak Ipar Amerikako superheroiaren komikira egindako hurbilketa bat da, **David Ajaren** lanaren bitartez: egile joria bera, Marvel Comics-en ibilbidea egina duena hainbat azal eta istoriotxo sortzen, Iron Fist, Hawkeye, Wolverine, Daredevil edo The Avengers bezalako pertsonaia famatuenak.

David Ajak bost Eisner sari ditu, Ipar Amerikan bederatzigarren arteak ematen duen saririk garrantzitsuenak, azken hamarkada honetako superheroi abangoardistenen eta originalenen sortzaile gailenetakoen artean kokatzen duena.

Aja ez da industria bateko artisaua, benetako artista baizik, diharduen arloan teknika nabarmen menderatzen duelako baino, bere lanari ematen dion eta bakana izatera eramaten duen originaltasun plus horregatik gailentzen baita. Baliteke kasurik nabariena *Hawkeye* sailaren hamaikagarren zenbakia izatea. Pizza Dog da bertan protagonista, superheroi protagonistaren maskota. Istorioa osorik dago kontatuta txakurraren ikuspegitik.

Lan bikain horrek eta beste batzuek eraman dute Karen Berger, DC Comics-eko editore mitikoa, Vertigo zigilua sortu zuena, bere proiektu berrirako hautatzera; Berger's Book zigilu editoriala, Dark Horse Comics-en. Erakusketa honetan, proiektu horretan parte hartzen duen *The Seeds* obrako pieza batzuk biltzen dira.

David Aja jatorrizkoak saltzen ez dituen artista denez gero, erakusketa honek aukera paregabea eskaintzen digu Espainiako egile ezagunenetako baten lana behatzeko, kontuan hartuta bera izan dela ondoen jakin duena bereganatzen beti hain zaila izan den Ipar Amerikako merkatua.

FANTASMÍAS & ANTEPASADOLLS

Sandra Arteaga

Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoa / urriak 27 – azaroak 11

2018 Beldurrezko Asteak erakusketa bat eskaini dio **Sandra Arteaga** (Terrassa, Bartzelona, 1980) artista katalanaren lanari. Hala, Donostiako Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoa bisitatuko dute bere izakiek urriaren 27tik azaroaren 11ra.

Kaixo, Sandra Arteaga dut izena. 1980ko abenduaren 20tik edo, existitzen naizela uste dut. Askotan erortzen, izakiak asmatzen eta haiekin panpinak egiten ematen dut nire denbora gehiena. Nahikoa.

Batzuentzat baliteke beldurrezko erakusfilm bat izatea, izaki beldurgarriekin, eta beste batuentzat fantasiako erakusfilm bat, izaki maitagarriekin... Beti izaten da horrela. Hala ere, espero dut inorentzat ez izatea axolagabe utziko duen erakusfilm bat. Eskerrik asko zuen arretagatik.

Pandra (Leotardo Da Calorinchi-ren jardun bereziarekin)



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**

**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**

**Horror and Fantasy
Film Festival**

KARTEL OFIZIALEKO kredituak

Protagonista

Itziar Castro

Argazkia: **Pedro Usabiaga**

Post-produkzioa: **Quentin Valois**

Jantzien diseinua eta sorkuntza: **Nerea Torrijos**

Makillajea eta ile-apainketa: **Balú Hair Trends**

Kartela: **Ytantos**

Making of: **Pixel**

Eskerrak

Añarbeko Urak

Miguel Baquero



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura